

Hauteskundeetarako babes bila bidai egingo du gaur Ieltsinek Brusselara

Europako Batasunarekin elkarlanerako asmoen deklarazioa sinatuko du etzi

Boris Ieltsin Errusiako lehendakariak Brusselara egingo du bidai, Europako Batasuneko (EB) estatu eta gobernu buruak bihar eta etzi egingo duten gailurraren aurretik aldebiko balizko akordio baten deklarazioen printzipioa sinatzeko. EB-k egindako keinua biziki aldekoa zaio Kremingo buruari, hauteskundeetarako lau egun besterik ez direla falta kontuan hartuta.

MOSKU

Bihar sinatuko dute Ieltsinek eta Europako Batasuneko agintariek aldebiko akordioaren aurreko deklarazioen printzipioa. Dena den, etorkizuneko elkarlana hitzarmen hori ez dago oraindik guztiz lotuta, igandean Errusian egingo diren hauteskundeetan. —Parlamentuko bi ganbarak hautatzeaz gain erreferendum konstituzionala egingo da— jardunaren arabera berretsiko baita. Bozketa horrek behatzeko Europako Batasunak 200 lagun bidali ditu Errusiara.

Behatzaile talde honetako ordezkari batek astelehenean ohar-tarazi zuenez, hitzarmena sinatu ondoren ere bertan behera geratu liteke adostutakoa, baldin eta igandean iruzurrik dela antzematen bada.

«Egia da bai, Europako Batasunak atzera egin dezake», azaldu zuen atzo Xokhin Errusiako lehen ministro ordeak Moskun emandako prentsaurrekoan. EB eta Errusia akordioa negoziatzen ari dira oraindik, eta hauteskunde prozesuari buruzko nondik no-



Azaroaren 11n EBko ordezkariak Errusiara egindako bisitaldian prestatu zuten Ieltsinen bidai.

rakoez gain, bi aldeek akordioari buruz dituzten ezadostasunak ere lehertu egin litezke.

Akordioa osotara lotzea lor-

tuko ez balitz zer gertatuko litzatekeen galdetuta, Errusiak gerra komertzial bati «erantzutako bitartekoak badituela» ihar-

detsi zuen Xokhinek. Dena den, Brusselaren eta Moskuren arteko gerrarik ez dutela nahi azpimarratu zuen lehen ministro ordeak.

Txetxenia inguratzeko agindua

MOSKU

■ Boris Ieltsin Errusiako lehendakariak Txetxenia inguratzea agindu zuen atzo. Errepublikak honek Moskurekiko independentzia aldarrikatu zuen orain bi urte, orduko hartan Errusiak ez zuen erabaki hau onartu, baina praktikan herri independente gisa jardun du orain artean.

Kremingo burua Kaukaso iparraldeko buruzagiekin bildu zen atzo Kabardino-Balkariako Naltxik hiriburuan. Bertan azpimarratu zenez, Errusiak errepublikaren independentzia onartzen ez duen arren, haren mugak zehaztu eta kontrolpean hartu behar ditu».

Honen harian, Oleg Lobov Errusiako Segurtasun Kontsei-

luko idazkariari eta Nikolai Gloxko Segurtasun ministroari Txetxeniako muga blokatzeko agindua eman zien Ieltsinek, baita bertara doan trena geldiaraztekoa ere.

Halaber, Kaukaso iparraldeko buruzagiekin egindako bileran Inguxetia eta Ipar Osetiari buruzko akordioa hitzartu zuen Ieltsinek.

Lega Nord alderdia barne krisiak astindu du

ERROMA

Italiako Lega Nord eskuineko alderdiaren barnean krisia sortu dela zabaldu da. Izan ere, alderdi honi dagozkion arazo nagusi bi zabaldu ziren atzo lau haizeetara. Lehenengo arazoari dagokionez, atzo bertan Alessandro Patueli Lega Nordeko administratzailea atxilotu eta espetxeratu zuten, legez kanpoko komisioen operazio arduraduna den epailearen aginduz.

Bestalde, eta bigarren arazoari lotuta, Umberto Bossi Lega Nordeko buruzagiaren aurkako kritika gogorak egin zituzten atzo alderdi bereko beste buru batzuek, joan den igandean Italian egin ziren Udal hauteskun-

de partzialen bigarren itzulian Lega Nordek Veneziako alkate-tza galtzearen errua Bossiri egotziz.

Patueli 'Esku garbiak' operazioa dela eta atxilotu duten Lega Nordeko lehenengo goi kargua da. Alderdien finantzaketan legez kanpoko komisioak egin dituelakoan atxilotu dute.

Bestalde, eta Lega Nordeko buruzagia den Umberto Bossi alderdi bereko hainbat buruzagik egin dizkioten kritikei helduta, besteak beste «inperialista hutsa» dela egotzi diote.

Kritikarik gogorrenak Franco Rochetta Lega Nordeko diputatu presidentea egin dizkio. Erabat haserre, «Venezia-



Umberto Bossi.

ko alkatezarako ezezagun bat (Aldo Mariconada) aurkeztu beharrean nire hautagaitza aurkeztu izan balute, ziur naizni izango nintzela egun Veneziako alkate», baietsi zuen Rochettak. Rochettaren ustez erru osoa Bossik eta beronen emaztea izan zen Mari-lena Marinek baino ez dute. «Hauek biok Venezia galdu eta ezkertiarren esku uztea nahiago izan dute», azpimarratu zuen.

Horrez gainera, Genoako alkate-tza galtzearen errua ere Umberto Bossi bota zion Franco Rochettak. «Era horretan, Lombardiako eskualdea baino ez zaiola ardura erakutsi du Bossik. Milan, Milan, Milan, beti Milan. Bossi inperialista hutsa da».

Bolikostako lehendakaria hil da prostatako minbiziak jota

ABIJAN

Felix Hofue Buani Bolikostako lehendakaria zen du zen atzo prostatako minbiziak jota, 88 urte zituela. Konstituzioak jasotzen duenez, Hofueren ordezkoa Parlamentuko lehendakaria den Konan Bedie 59 urteko gizona izango da.

Atzo goizean hil zen Abijanen Hofue, 33 urtez estatuburu izan ondoren. 1905eko urriaren 18an jaio zen Yamussukron, baule leinuko familia aberats batean. 20 urterekin medikuntzan lizentziatu zen eta bere lanbidean aritu zen 1940era arte Abijanen. 1944ean politika munduan murgiltzen hasi zen. Urte horretan Afrikako Nekazarien Sindikatua sortu zuen nekazarien interesak Frantziako Administrazioak jarritako metodoen aurrean defenditzeko asmoz.

Serbiarrek bidea oztopatu diete konboi humanitarioei

GENEBA

Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiko (UNHCR) konboi humanitarioei Bosniako serbiarrek oztopoak jartzen ari direla salatu zuen atzo Ron Redmon UNHCRko bozeramaileak, nahiz eta aurrez aurre borrokan ari diren hiru aldeetako ordezkariak konboi humanitarioei oztopo-rik ez jartzeko akordioa sinatu duten.

Arazorik handienak Bosnia ekialdean dagoen Gorazderako bidean diren konboiei sortu zaizkie, atzo Redmonek azaldu zuenez. «Azken hila-bete honetan Gorazdera konboi biri baino ez diete pasatzen utzi, oso gutxi da hori, izan ere, Gorazden 60 bat mila lagun egoera larrian daude», adierazi zuen Redmonek.

UNHCRren datuen arabera, Gorazden dauden eraikuntzen % 60 sunsittuta daude gerraren ondorioz. Hori dela eta, bertako biztanleen arazorik latzena aterbe bat aurkitzea da eta are arazo gogorragoa da egungo negu gorriaren ondorioz.